

GETXON HAZKATU & IRABAZI, II. edizioa. OINARRIAK

Getxoko Udalaren babesa jaso du “Getxon Hazkatu & Irabazi” ekimenak proiektuan parte hartzen duten merkataritza-, ostalaritza- nahiz zerbitzu-enpresak bultzatzea eta horien bezeroen konfiantza zein fideltasuna saritzea du helburu.

‘HAZKATU & IRABAZI’ TXARTELAK BEZEROEI EMATEKO ALDIA: 2018ko uztailaren 10etik 31ra (biak barne), edo proiektuan parte hartzen duen establezimendu bakoitzean dauden ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelak agortu arte.

NOLA ESKURATU ‘HAZKATU & IRABAZI’ TXARTELAK?: jarduerarekin bat egin duten enpresetan 10 euro baino gehiagoko erosketak edo kontsumoa eginez, baldin eta establezimendu bakoitzean dauden txartelak ez badira agortu. Proiektuan parte hartzen duten enpresen eta kontaktu-datuak www.getxoenpresa.com webgunean daude argitaratuta.

- Gehienez 10 euroko erosketa edo kontsumorako, proiektuan parte hartzen duen enpresa bakoitzak bezeroari ematen dizkion ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelen kopurua zehazten du.
- Ekimenean parte hartzen duten enpresa guztiek saritutako ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelen (beste enpresa batzuetan trukatzeko) eta saritu gabeko txartelen kopuru bera daukate bezeroei emateko. Horiek agortutakoan ez da gehiagorik emango.
- Proiektuan parte hartzen duten enpresetako jabe eta langileek ezin dute ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelik eskuratu.
- Estankoek eta farmaziek ezin dute ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelik eman tabakoa, kontsumigarriak (metxeroak, papera, tabakoa eta abar), tinbreak eta sendagaiak saltzean.

SARIAK: diruzko opari-baleak dira, bezeroak produktu edota zerbitzuekin trukatzeko, bere enpresan edo proiektuan parte hartzen duen beste enpresa batean.

- ‘Hazkatu & Irabazi’ txartel bakoitzean adierazten da saririk daukan edo ez.
- ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelak saririk badauka, horrek zehaztuko ditu sariaren diruzenbategia eta trukatu behar den establezimenduaren izena eta helbidea.

SARIEN ESKURAKETA:

- ‘Hazkatu & Irabazi’ txartela daukan pertsonak saria eskuratu ahal du 2018ko irailaren 30era arte (barne), diruzko opari-balea trukatu behar den establezimenduan saritutako txartela aurkeztuz. Saritutako txartelak eramaten diren establezimenduaren esku geratuko dira.
- Saridunek saritutako txartelak ematen dituzten enpresetan, ez da onartuko eskuratuko edota kontsumitutako produktu edota zerbitzuen itzulketarik. Beraz, saritutako txartelak hartzen dituen enpresa bakoitzaren erabakia izango da sari gisa emandako produktu edota zerbitzuen aldatetak edo itzulketak onartzea edo ez.
- ‘Hazkatu & Irabazi’ txartel bakoitza erosketa edo kontsumo ekintza bakarrean trukutzen da, dagokion enpresan.
- Saria trukutzen den erosketa edo kontsumoaren zenbatekoa ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelean ezarritakoa baino txikiagoa baldin bada, enpresak ez du bien arteko aldea ordainduko.
- ‘Hazkatu & Irabazi’ txartel sarituen kasuan, txartela eman den establezimendu berean trukatu nahi bada, trukaketa gerora egiten den erosketa edo kontsumo batean egin behar da, hau da, ez ‘Hazkatu & Irabazi’ txartela eskuratu den erosketa edo kontsumo ekintza berean.
- Estanko eta farmazietan, ‘Hazkatu & Irabazi’ txartelen truke ezin da eskuratu tabakorik, kontsumigarriak (metxeroak, papera, tabakoa eta abar), tinbrerik edo sendagairik.

Getxo Enpresak oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein konturi buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dauka. ‘Getxon Hazkatu & Irabazi’ren II. edizioan parte hartzeak goian adierazitako oinarri guztiak erabat onartzea dakar.